

Indarkeria  
matxisten  
aurka  
borrokatzeko  
eragin  
politikoa  
duten  
estrategien



Egilea: Raquel Andrés Dura  
Argitalpenaren koordinazioa: InteRed Euskal Herria  
Edizioa: InteRed Euskal Herria  
Diseinua eta maketazioa: Kalaka Koop. Elk. Txikia  
Itzulpena: Bakun, S.L.  
Data: 2024ko urria

Argitalpen hau Elankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantza-laguntzarekin egin da. “Berdintasunaren ueña da: zaurgarritasun-arriskuan dauden emakumeen ahduntzea –begirada globalarekin– indarkeria matxistarik gabeko mundu baterako agente eraldatzaile gisa” eta “Emakume eta gazte antolatuak eragiteko, artikulatu eta mobilizatu egiten dira jazarpen politikoa, sexu-jazarpena eta ziberjazarpena saihestu, zigortu eta desagerrarazteko, zaintzen erantzukidetasuna Punon eta Bizkaian sutatzeko” proiektuen barruan. InteRed Fundazioa da argitalpen honetako edukiaren erantzule, eta hemen jasotako iritzi guztiek ez dute zertan bat etorri Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziarekin, ez Bizkaiko Foru Aldundiarekin.

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



---

## SARRERA

4. or.

---

## POLITIKA PUBLIKOETAN ERAGITEKO ESTRATEGIA

7. or.



01. Arazo publikoaren diagnostikoa | 8. or.



02. Helburuak eta proposamenak | 11. or.



03. Funtsezko agenteen mapa | 14. or.



04. Estrategiak eta ekintzak | 18. or.



05. Komunikazio-plana | 23. or.



06. Baliabideak eta kronograma | 26. or.



07. Monitorizazioa eta ebaluazioa | 30. or.

---

## NOLA IKUSTEN DUTE ERAKUNDEEK KOLEKTIBO FEMINISTETARA HURBILTZEA?

34. or.

## SARRERA

Ukaezina da gizarte-mugimenduen bidez egindako borroka feministak emaitzak ematen dituela. Sufragistetatik hasi (eta askoz lehenago), eta bata bestearen atzetik etorri diren olatuetaraino. Agerian jarri dira intersektionalitatea eta klase-, genero- eta etnia-desberdintasunak. Eta gogoratu ditzagun sexu-eraso eta -jazarpenen azkenaldiko ikusgarritasun eta salaketak. Batzuek eta besteek eragin politikoa izan dute, eta horrek aurrerapenak ekarri ditu legeetan, berdintasunaren alde eta indarkeria matxisten aurka.

1979an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak CEDAWren (Emakumearen Aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzekeo Konbentzioa) nazioar-

teko ituna bere egin zuen. Itun horretan, lankidetzak eta koordinazio globalak desberdintasunen aurrean duten garrantzia jasotzen da, eta nazioarteko komunitatearen mugarri nagusia da indarkeria matxisten aurkako borrokan.

Jada 1993an, NBEk Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena onartu zuen. Nazioarteko tresna horretan, esplizituki lantzen zen gaia, eta nazioan zein nazioartean ekiteko testuingurua ezarri zuen. Bi urte geroago, IV. Mundu Konferentzian, erakunde horrek berak onartu zuen emakumeen aurkako indarkeria oztopo dela berdintasun-, garapen- eta bake-helburuak lortzeko, eta giza eskubideez nahiz oinarrizko askatasunez gozatzea urratzen eta kaltetzen duela. Historikoki gizonen eta emakumeen artean izan diren botere-harreman desorekatuak ere azpimarratu zituen.

Espainiar estatuan, 1978ra arte, gizon batek bere bikotea hil zezakeen erantzukizun penalik gabe, emakumeak adulterioa egin zuela argudiatuz gero. 1975era arte, emakumeek mendekotasun-egoera juridikoa zeukaten gizonekiko, eta, beraz, aitaren

edo senarraren mende zeuden. 1989an hasi zen familia-eremuko indarkeriazko jokabide hori zigortzen, baina indarkeria matxistak oraindik oso normalizatuta zeuden XX. mendearen amaieran. 1997an, Ana Orantes-en kasuak iritzi publikoa asaldatu zuen. Emakume hark Canal Sur telebista-katean kontatu zuen, zuzenean eta modu gordinean, zer-nolako indarkeria jasan zuen 40 urtez bere senar ohiaren eskutik; 13 egun geroago, senar ohiak modu basatian hil zuen Orantes.

Indarkeria matxista, garai hartan genero-indarkeria edo etxeko indarkeria moduan ezagutzen zena, hedabideetan zuen ikusiezintasunetik atera zen. Francisco Álvarez-Cascos Gobernuako presidenteordearen beraren hitzetan “kasu isolatutzat” hartu bazen ere oro har, hilketak eta haren ondorengo tratamenduak eragina izan zuten gizarte zibilean. Horrela, une hartako borroka feministaren ondorioz, eta hiru hilabete geroago, 1998ko martxoan, Gobernuak “etxeko indarkeriaren aurkako lehen ekintza-plana” onartu zuen; 1999an Zigor Kodea aldatu zen, eta, hala, indarkeria psikologikoa etxeko eremuan tratatu txarrak emateko modu gisa ezarri zen eta

urruntze-aginduak sartu ziren. Prozedura Kriminalaren Legea ere aldatu zen, indarkeria hori ofizios jazarri ahal izateko, biktimak salaketa jarri beharrik gabe. Garai hartako beste aitzindari bat Nevenka Fernández izan zen, Ponferradako PPko zinegotzia orduan, salaketa jarri baitzuen gobernu-taldeko kide zuen Ismael Álvarez alkatearen aurka. Sexu-jazarpenagatik kargu politiko bati kondena ezartzea lortu zuen lehen emakumea izan zen, baina emigratu beharra izan zuen, salaketaren ondoren lana lortzeko izan zituen zailtasunenagatik.

2003an, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua Arautzeko Legea onartu zen, epaileek behin-behineko neurriak hartu ahal izan zituzaten salaketa jarri eta hurrengo 72 orduetan. Urte horretan hasi ziren ofizialki zenbatzen indarkeria matxistaren biktimak. 2004an iritsi zen, José Luis Rodríguez Zapateroren gobernuarekin, Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integrala. Lege horrek generoagatiko larrigarriak sartzen zituen lesioen, ohiko tratatu txarraren eta tratatu iraingarriaren delituetan, bai eta biktimak babesteko

mekanismoak ere, hala nola kalte-ordainketak, doako laguntza juridikoa edota bizitoki-baliabideak. 2014az geroztik, indarkeria hori jasaten duten emakumeen seme-alaba adingabeak ere biktimatzat hartzen dira.

2022an, Sexu Askatasunaren Berme Integralaren Legea iritsi zen, sexu-delitueta fokua jartzen duena. Sexu-eraso moduan bateratzen ditu delitu denak, eta ordura arte Zigor Kodean jasota ez zeuden batzuk sartzen dira: kale-jazarpena edota baimenik gabe sexu-edukia birbidaltzea, adibidez. Legeen aurrerapen horretan zerikusi handia izan zuten 2016ko Iruñeko sanferminek. “La Manada” izenez ezagutzen den kasuak erantzun sozial handia izan zuen kaleetan. Ondoren, mundu-mailako “Me Too” mugimendua etorri zen, eta manifestazio garrantzitsuak, Espainiar estatuko kaleetan. Esaterako, 2018ko martxoaren 8ko manifestazio jendetsua, Emakumeen Nazioarteko Geldialdiarekin batera (bai lan ordaindukoa, bai zaintzakoa), haiek gabe mundua gelditu egiten zela frogatzeko.

Hala bada, argi dago tokiko kolektibo feministetan antolatutako gizarte zibileko inurritxoetan lanak eragina duela erakunde publikoek onartzen dituzten legeetan, baina baita gizartea oro har kontzientziatzeko eta arazo agerian jartzeko lanean ere. Batez ere, gizarte zibil antolatuko kolektibo txikienek zailtasunak izaten dituzte beren eskaerak erabakiak hartzen diren espazioetara helarazteko. Igarotze hori errazteko helburuarekin, gidaliburu hau aurkezten dugu, indarkeria matxisten aurka borrokatzeko eragin politikoa duten estrategiak lantzeko, proiektu honen barruan: *Berdintasunaren unea da: zaurgarritasun-arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea –begirada globalarekin– indarkeria matxistarik gabeko mundu baterako agente eraldatzaile gisa*. Elankidetza – Garapenerako Elankidetzaren Euskal Agentziak finantzatu du, Garapenerako Hezkuntza Proiektuetarako Laguntzen bidez (K3).

## POLITIKA PUBLIKOETAN ERAGITEKO ESTRATEGIA

Gizarte zibil antolatuetan politika publikoetan ondorio izatea ezinbestekoa da gizarte-mugimenduek eragina izan dezaten erakundeetan hartzen diren erabakietan. Ikuspegi demokratiko batetik, beharrezkoa da gizartea osatzen duten pertsonek parte hartzea, hauteskundeetako parte-hartzetik harago, interes orokorraren aldeko politika publikoen diseinuan. Batzuetan, herritarren parte-hartzea murriztuta geratzen da ordezkari hautetsien borondate politiko faltagatik; beste batzuetan, herritarrek beraiek ez daukatelako nahikoa ezagutza, baliabide eta abar.

Indarkeria matxisten kasu zehatzetan, funtsezkoa da kolektibo feministek ahotsa eta erabakitze-ko ahalmena izatea hartzen diren


neurrietan, errealitate hori zuzenean ezagutzen dutelako. Askotarikoak izan daitezke Administrazioarekiko eragin-ekintzak: aurre egitetik hasi, eta harekin lankidetzan aritzera, egoera politikoaren arabera.

Alderdi politiko batzuek indarkeria matxisten aurkako borrokaren kontrako ideologia daukate argi eta garbi, eta ukatu ere egiten dute indarkeria matxistarik badenik. Alderdi horiekin, eragin politikoa lortzeko biderik azkarrena konfrontazioa izaten da; beste batzuk, aldiz, elkarriketaren aldekoak dira, baina agian ez daukate nahikoa ezagutza eta baliabide (denbora, dirua, langileak) ildo horretan lan egiteko. Kasu horietan, baliagarria da genero-indarkeriaren arloan jarduten duten kolektiboaren parte-hartzea eta elkarlana, beren espezializazioagatik, eta badakitelako zer behar den eta/edo zer hobetu daitekeen.

Jarraian, politika publikoetan eragiteko estrategia-egitura bat ikusiko dugu, guztion onerako lan egiten duten kolektiboentzat diseinatua, arazo publiko bat, hots, indarkeria matxistak, desagerrarazteko.

# 01

## Arazo publikoaren DIAGNOSTIKOA






**Lehenik eta behin, konpondu nahi den arazo publikoa identifikatu behar da.** Indarkeria matxistei buruz ari gara, baina tokiko talde baten eragina alderdi espezifiko baten gainekoa izango da. Funtsean, galdera hau egin beharko diogu geure buruari:

## ZER ARAZO PUBLIKO-RI JARRI NAHI DIOGU ARRETA?

### ADIBIDEA

Indarkeria matxistagatik biko-  
tea salatzen duten biktimek ez  
daukate non bizi (bizitoki-  
baliabiderik eza); udaltzainek  
ez dituzte behar bezala trata-  
tzen salaketa jartzten duten  
emakumeak (biktimei arreta  
emateko prestakuntzarik eza);  
kezka dago gazteen jokabi-  
de matxisten gorakadaren  
aurrean; opakutasuna ikusten  
da etxeko langileek jasaten  
duten tratuan, eta arazoak  
dauzkate salaketa aurkezteko,  
beldurrengatik eta adminis-  
trazio-egoera irregularra izan  
dezaketelako, etab.

**Funtsezkoa da erasandako biztanle-talde zehatza identifikatzea** (adibidez, gazteak, migratzaileak, sare sozial sendorik gabeko pertsonak...), **baita arazoaren kausak eta ondorioak ere**, askotarikoak izan ohi baitira, eta pertsona bakoitzak ikuspegi desberdina izango du arazo horrek bere bizitzan duen eragin negatiboari buruz. Ez dago sobe-  
ra hainbat ikuspegi izatea diag-  
nostiko osoagoa egiteko.



**Modu eskematikoan galdera hauei erantzuten hasi beharko genuke:**



## GAL DE RAK



- Zer egoerak eragiten dio biztanleriari?
- Zer kolektibori eragiten dio arazoak? Zergatik kolektibo horri? Zer eskatzen du kolektiboak egoera konpontzeko?
- Zerk edo nork eragiten du arazoa, nondik dator eta zer faktorek indartzen dute?
- Zer ondorio ditu arazoak?
- Nork konpondu beharko luke egoera eta zer parte hartu behar du egoera horretan?




## I DEI AK

- Antolatu bilera edo batzar bat, guztiak galderen erantzunak pentsatzeko. Batzuetan, ikuspegi batzuk bistatik galtzen ditugu.
- Arazo horrek erasaten dituen pertsonengana zabandu dezakezue fokua. Parte hartzera gonbida ditzakezue, edo bilera formalak nahiz informalak egin ditzakezue haiekin.

# 02

**HELBURUAK eta  
proposamenak**



## ZEIN DA ERAGINAREN HELBURUA? ZER LORTU NAHI DUGU?

Arazo publikoaren diagnostikoa egin ondoren, **eraginaren helburu espezifikoak zein diren ezarri behar da.**

### ADIBIDEA

Udal-protokolo bat sortzea, gerta daitezkeen indarkeria matxistako kasuen arreta eta salaketa publikoa azkartzeko eta gaitzespena eragiteko, udaltzainentzako prestakuntza-programa bat abiaraztea, udalerrian baliabide berri bat sustatzea biktimen behar espezifiko bati erantzuteko, adineko pertsonen arteko indarkeria matxistak agerian jartzeko, jaietan puntu more bat ezartzeko, etab.

**Helburu orok berekin eraman beharko lituzke arrazoien azalpena (zergatik da beharrezkoa?) eta proposamen praktikoren bat,** aipatutako arazo publikoa nola konpon daitekeen argi transmititzeko.

### ADIBIDEA

Helburua bada emakumeek arreta psikologikoa ematen duen udal-espazio bat izatea indarkeria matxistak prebenitzeko, espazio fisikoak, ordutegiak, beharko lirakeen teknika espezializatuak eta abar proposa daitezke, “Errege Magoentzako Eskutitz” soil gisa gera ez dadin. Interesgarria da “ideia-jasa” bat egitea eta bururatzan zaizkigun proposamen guztiak paperean jartzzea, a priori zentzugabeak iruditutako dakizkigukeen arren; izan ere, talde handiko eztabaidak lagundu egin dezake haiei forma ematen edo haietako batzuk konbinatzen (edo baztertzen, inon ezin badira sartu).

Bestalde, **ezinbestekoa da baloratzea Administrazioan jada zer baliabide juridiko eta araubaliabide dauden planteatutako arazo publikoari konponbidea emateko.** Hau da, ba al dago jada arazo horri erantzuten dion politika publikorik, eta, agian, urrunago iritsi beharko al luke alderdiren batean? Edo, beharbada, hutsune bat dago, ez dago hura jasotzen duen inolako araudirik, eta hutsetik sortu beharko da bat? *EAEn dauden tresna juridiko guztiak ikus daitezke hemen.* Gainera, esan behar da Emakumeen Etxetan doako aholkularitza juridikoa ematen dela.

## GAL DE RAK

- Zergatik da beharrezkoa arazo publiko hau konpontzea?
- Zer lortu nahi dugu? (konponbideak edo neurriak)
- Ba al dago erdietsi nahi den helburua lortzeko baliabideak eskaintzen dituen araudirik (tokikoa, probintziala, autonomia, etab.)?




## I DEI AK

- Sortu ideia-jasa egiteko espazio bat. Ideia guztiak hartuko dira kontuan, zentzugabeak iruditu arren. Egongo da denbora haiek banan-banan baloratzeko.
- Aprobetxatu Emakumeen Etxeetan ematen den aholkularitza juridikoen doako zerbitzua, orientazio juridikoa, aholkularitza soziala eta abar behar badi-tuzue.

# 03

## Funtsezko agenteen MAPA



**Interesgarria da konpondu nahi dugun arazo publikoan jada lanean ari diren beste kolektibo batzuk identifikatzea.** Herri-mailan, ezarritako emaitzak lortzen lagundu dezaketen elkarrekin hitzarmenak egitea planteatu daiteke; adibidez, kasuaren arabera, ikastetxeko guraso-elkarrekin edo adineko pertsonen elkarrekin.

Herri txikietan arazoa izaten da askotan, giza baliabideak oso mugatuak izaten direlako. Pertsona gutxi egiten dute lan modu aktiboan kolektiboetan, eta asko hainbat espaziotako kide ere izaten dira. Fokua zabaltzeko, gaia landu duten gertuko udalerrietako kolektiboekin egin daitezke aliantzak, eta inspirazio-iturri eta gida izan daitezke, antzeko eragin-prozesuetan aurrera nola egin duten jakiteko; arazo publikoaren eremuak eta ezarritako helburuek udal-maila gainditzen badute, garrantzitsua da harremanak egin eta indarrak batzea.

Bestalde, agenteak eta aliantzak identifikatzean, garrantzitsua da, halaber, argi izatea **nork duen planteatzen den arazo publikoa ebazteko eskumena**: udalak, aldundiak, gobernu autonomikoak edo estatuko gobernuak berak. Ohikoa da ezjakintasunez pentsatzea gure herriko alkatearen

eskuetatik pasatzen dela dena, baina arazoa haren eskumenekoa ez bada, oso baliotsuak diren denbora eta energia gal ditzakegu bidean.

**Udalak dira eragin politikoarekiko iragazkortasun handiena izaten duten espazioak, tamaina txikiagatik zein hurbiltasunagatik.** Gainera, haietan zertxobait murrizten dira alderdikeriak, eta,

hori, batez ere, udalerrri ertain eta txikietan ikusten da. Legegintza-eremuak dira irekienak (parlamentuak, udaletako osoko bilkurak...); gobernuak (tokiko batzarrak, alderdietako goi-karguak...), aldiz, itxiagoak izan ohi dira. Interesgarria da aztertzea non merezi duen ahalegina egitea eragin politikoa lortzeko.

**Politika publikoen zikloa honako hau da:**

- **Aurkezpena** arazo publikoaren azalpena.
- **Proposamenen lanketa** arazoei konponbidea emateko, eta politika publikoaren diseinua eta planifikazioa.
- **Inplementazioa** era guztietako baliabideak mobilizatzea hura gauzatzeko
- **Ebaluazioa eta monitorizazioa** helburua betetzen ari den ala ez aztertzeko.

**“Noiz?” galdera garrantzitsua**

**da.** Bi unetan bereziki baliagarria da eragiten saiatzea, alderdi politikoak eta haien ordezkariak entzuteko irekiago daudelako: urte bakoitzeko azken hiruhilekoan, erakundeek beren aurrekontuak egiten dituztenean (kolektibo gisa, aurretik planifikatu behar dugu); eta hauteskundeen kanpainaurrian eta kanpainan bertan, nahiko erraza izaten baita jendaurrean promesak eginaraztea, eta merezi du horiek nolabait grabatzea, behin gobernuan egonda, agindutakoa gogorazteko.

Kontuan izan behar da ordezkari politikoak aldatu egiten direla eta legegintza-zikloak laburrak direla egiturazko arazoei aurre egiteko, patriarkatuari eta harekin lotutako indarkeria matxistei kasu. Onerako edo txarrerako, eragin politikoan sartzen den zerbait da: emakumezko ordezkari hautetsi bat edo beste egoteak izugarri aldatu dezake kolektiboaren eragiteko gaitasuna. Nolanahi ere, harreman pertsonalak garrantzitsuak dira politikan, eta funtsezkoak eragina lortzeko, sigletatik harago.

**Azertu beharreko gaiak** (berdintasuna, hezkuntza, segurtasuna...) **zuzenean nor arduratzen den identifikatu behar da** (zinegotziak, teknikariak, etab.), **eta haiengana hurbildu.** Erantzuna aurkakoa bada, beti dago aukera konfrontazio-estrategia bat abiarazi eta arazoa agenda publikoan ezagutarazteko (hurrengo puntuan ikusiko dugu). Batzuetan, proposatutako helburuetarako baliagarria izan daiteke oposizio politikoko kideengana hurbiltzea, organo legegileetan presioa egiten lagundu dezaten. Eragina asko mugitzen da formalaren eta informalaren artean.

Ikusi da, udalerrri txikietan batez ere, badagoela adineko emakumeen profil jakin bat, politizatuta egon edo ez, erraz jartzen direnak harremanetan emakumezko ordezkari publikoekin, “betidanik” ezagutzen dituztelako eta gune txikiek hurbiltasunerako bide ematen dutelako. Kontrako aldean, ikusten dugu hurbiltasunik eza eta oztopo soziolinguistikoak ere eragozpen izan daitezkeela talderik ez duten, migratzaileak diren edota arrazializatuta dauden emakumeentzat.



## GAL DE RAK

- Ba al dago antzeko kolektiborik planteatutako helburuan lanean?
- Zer erakundek eta pertsonak dute identifikatutako arazoaren administrazio-eskumena?
- Zer unetan eragin nahi dugu ordezkari edo alderdi politiko batengan?
- Zer izango da eraginkorrena, Gobernura ala oposizioa hurbiltzea?
- Ezagutzen al dugu gai honetan eskumena duten pertsonengana "erraz" hurbiltzerik duen norbait?
- Zer lortu nahi dugu, lankidetzara ala konfrontazioa?




## I DEI AK

- Jarri harremanetan antzeko kolektiboekin indarrak batzeko, ahal bada, edo helburu jakin bat lortzen laguntzeko eta aholku emateko. Emakundek Euskadiko emakume-elkarteen gida bat dauka: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias/es\\_emakunde/adjuntos/guia\\_asoc\\_mujer\\_euskadi.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias/es_emakunde/adjuntos/guia_asoc_mujer_euskadi.pdf)
- Ordezkari politiko batzuk nahiko iragazkorak eta hurbilerrazak diren arren, oro har bi unetan egoten dira proposamenak entzuteko irekien: urteko aurrekontuak egiten dituztenean (urte bakoitzeko azken hiruhilekoan) eta hauteskunde-garaietan.
- Beharrezkoa bada, erabili herri-tarrek parte hartzeko erakundeek dauzkaten bideak.

# 04

## ESTRATEGIAK eta ekintzak



**Politika publikoetan eragin bat lortzeko, garrantzitsua da estrategia bat izatea eta ekintza batzuk planifikatzea.** Horretarako, zer ekintza egin nahi ditugun pentsatu behar da, bai barrura begira (arazoaren berri izan, hura konpontzea noren eskumena den aztertu...), bai kanpora begira (kanpaina egin sare sozialetan, mobilizaziora deitu, herrian kartelak jarri, hedabideetan zabaldu, bilerak eskatu, informazio-dokumenturen bat prestatu...).

Eragin politikoa lortzeko estrategiak eta ondorengo ekintzek **bi bide** jarraitu ditzakete (bat edo bestea, edo biak, aldi berean zenbaitetan):

### 1| **Gizarte-bidea:**

Arazo publiko jakin bat ahalik eta pertsona gehienei ezagutarazi nahi zaie, arazo hori agerian jartzeko, atxikimenduak lortzeko edo botere-instantzietan presioa egiteko helburuarekin. Halakoak dira, adibidez, hedabideetan zabaltzea, udalerrian kartelak jartzea, hitzaldiak antolatzea eta elkarretaratzeko edo manifestazioak deitzea.

### 2| **Bide instituzionala:**

Identifikatutako arazoari araudi baten edo baliabide publikoen bidez konponbidea ematera bideratuta dago, edo, udal-gobernua aldekoa ez bada, presioa handitzera, oposizioarekin aliantzak eginez. Emakumezko hautetsi politikoez zein haien aholkulari-taldeak daukaten lan-kargagatik eta jorratzen dituzten askotariko gaiengatik, gomendagarria da dena “murtxikatuta” ematea: mozio bat aurkeztea, jada idatzita, udaleko osoko bilkurarako, beren diskurtsora egokitu baino egin ez dezaten; aurrekontuen zuzenketak bat, jada idatzita, “kopiatu eta itsatsi” egitea baino ez dakarrena, etab.

**Zehaztu ditzagun egingo ditugun edo hasiera batean egin nahi ditugun ekintza guztiak:** indar politiko guztiekin bildu, aldeko sindikatuarekin elkarrizketak egin, enpresekin topaketak antolatu, prentsa-ohar bat idatzi, informazio-dosier bat landu, ekitaldi bat prestatu, data jakin batzuk aprobeixatu presioa egiteko, etab.

Kontuan hartu beharrekoa. Indarkeria matxistak emakumeek egunero jasaten duten sistema patriarkalaren gaitz bat dira. Hala eta guztiz ere, gaiari ikusgarritasun handiagoa ematen dioten bi data garrantzitsu daude egutegian: martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, eta azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguna. Bi efemeride horiek aprobetxatu daitezke gaia agendetan sartzeko, hala agendak publikoan nola gobernuaren agendan. Ideala izan ez arren, errealitatea da hedabideek eta ordezkari politikoek oraindik ere harberagoak izaten jarraitzen dutela gai horiekin bi data horietan; eta aprobetxatu egin behar da.

Zenbaitetan, arazoa mahai gainean jartzea besterik ez dugu nahi, egiturazko egoera edo arazo bat ikusarazteko, eta ez hainbeste neurri edo konponbide espezifiko bat lortzeko. Kasu horietan, hizkera goratu eta enfatikoak erabil dezakegu, eta ez daukagu ekintza guztiz errealistatik egin beharrik, arreta erakartzea dugulako xede, horri buruz hitz egitea nahi dugulako, eragin politikorako bide berriak ireki daitezten. Konponbide zehatz bat nahi badugu, berriz, kontu handiagok ibili behar dugu, zuhurrago eta errealistago jokatu behar dugu estrategia, ekintzak eta proposamenak pentsatzeko orduan.

**Kasu jakin batzuetan, auzi estrategiko bat planteatzera iritsi gaitzke,** eta gai jakin bat auzitegietara eraman dezakegu, erasandako pertsonen aldeko epaia lortzeko helburuarekin. Ekintza garestia da baliabide ekonomiko eta emozionaleri zein denborari dagokienez, baina ezinbesteko bidea da borrokarako eta eragina lortzeko. Batzuetan, bide bakarra ere bada.

# GAL DE RAK

- Arazo bati konponbidea eman nahi diogu edo egiturazko arazo bat ikusarazi?
- Zer barne- (kolektibo gisa) eta kanpo-ekintza egin nahi ditugu?
- Zer eragin-bide jarraitu nahi ditugu (soziala, instituzionala, judiziala...)?



## I DEI AK

- Ezarri estrategia bat egin behar dituzuen urratsekin (lehenik, gaiaren arduraduna identifikatu, eta, ondoren, bilera bat eskatu; kartel bat egin, inprimatu eta itsatsi, etab.).
- Egin ideia zehatzen zaparrada bat: performance bat egitea, indarkeria matxistekiko zero tolerantzia adierazteko karteletan herriaren izena agertzea, indarkeriaren bat jasanez gero saltokiak joan gaitezkeen leku segurutzat identifikatzen dituzten eranskailuak banatzea, herriaren edo auzoaren segurtasun ezeko mapak egitea, artibismoak sustatzea...
- Manifestuak egiteko, Emakundek indarkeria matxistei buruz jasotako datuak erabil ditzakezue: <https://www.emakunde.euskadi.eus/informacion/evaluacion/webema01-contentemas/es/>. Gainera, erreferentziazko kolektiboen manifestuetara jo dezakezue, testu horiek oinarri moduan baliatzeko, hala nola Euskal Herriko Mugimendu Feminista edo Euskal Herriko Emakumeon Martxa kolektiboek.
- Aprobetxatu efemerideak herritarrengan, hedabideetan eta botere politikoan eragin handiagoa lortzeko (martxoaren 8a eta azaroaren 25a, esaterako).

# 05

## Komunikazio- PLANA



**Komunikatzen ez dena ez da existitzen. Komunikazioa funtsezkoa da politika publikoetan eragina lortzeko.** Arazo publiko jakin bat dagoela eta herritarren zati bati eragiten diola ikusarazteko modua da, udaleko emakumezko ordezkari hautetsiek eta teknikariek esku hartzeko beharra ikusi eta balora dezaten.

Arazo publikoa identifikatu eta aztertu ondoren, hurrengo urratsa da ikusaraztea arazoa badagoela eta herritarrei eragiten diela, gobernuaren ohartu dadin esku hartu behar duela arazoa konpontzen. Horretarako, bi agendatan sartu behar da gaia: agenda publikoan eta gobernuaren agendan.

**Agenda publikoak gaia iritzi publikoan kokatzeko balio du, hau da, ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta babesak lortzeko ekintzarako deia egiteko.**

Ekintza-bide asko daude: udalerriko puntu nagusietan kartelak jartzea, sare sozialak, egunkarietako iritzi-tarteak eta prentsa-oharrak zabaltzea.

Kazetariekin zuzenean harremanetan jartzea gomendatzen da,

arazo publikoa zabaldu dezaten, hala konfiantzazko pertsonen bidez, nola tokiko hedabideetan, plataforma bikainak baitira, eta ez da zaila izaten haietan edukia argitaratzea. Eragina duten hedabideetan argitaratzen saiatu behar dugu, kontuan hartuta zer eremutan eragin nahi dugun: udaletan, normalean tokiko prentsaren bidez; baina baita autonomia-mailan gehien kontsumitzen diren hedabideetan ere.

**Gobernuaren agendako gaiak dira udalak edo beste erakunde publiko batek giza baliabideak, finantza-baliabideak eta denbora erabiliz bideratzen dituen ekintzak.** Indarrean dagoen arau-esparruan txertatu behar dira. Indarkeria matxistekin lotutako arazo publikoak gobernuaren agendan sartzea funtsezkoa da politika publikoetan eragina lortzeko. Horretarako, lehenik eta behin agenda publikotik pasatzea da ohikoena, nahiz eta batzuetan zuzenean gobernuaren agendan sar daitekeen, eskaeren, emakumezko politikari hautetsiekin egindako bileren eta abarren bidez.



## GAL DE RAK



- Zer komunikatu nahi dugu, arazo bat, manifestazio bat, tailer bat...?
- Zer espazio fisiko dauzkagu udalerrian informazioa helarazteko?
- Zer espazio digitaletan sar gaitzke? (tokiko hedabideak, sare sozialak)
- Gure ekintza komunikatzen lagundu dezakeen kazetariaren baten zuzeneko kontaktua daukagu?



## I DEI AK

- Jarri harremanetan kartel erakargarriak egiten lagundu diezazueketen zuen inguruko pertsonekin. Mugikorrerako aplikazio batzuek, Canva izenekoak, adibidez, txantiloiak dauzkate horretarako.
- Hitz egin tokiko hedabideekin hedatze-lana egiteko; zuzenean langileekin, ahal bada.
- Interesgarria izan daiteke ordezkari politikoren batekin harremanetan jartzea, arazoei ahotsa ematen lagundu diezazagun (hedabideen bidez, sare sozialen bidez, udalean mozioak aurkeztuz, etab.).

# 06

**BALIABIDEAK**  
**eta kronograma**



Lehen ikusi dugunaren ildotik, **funtsezkoa da aztertzea zer baliabide dauzkagun gure eragin politikoko prozesurako.** Kontuan izan behar da zer daukagun eta zer ez, noraino irits gaitezkeen jakiteko (eta noraino ez): baliabide ekonomikoak, beharrezkoak izan baitaitezke kartelak edo eskuorriak inprimatzeko, edo baita baliabide gutxiago dituzten pertsonen joan-etorriak ordaintzeko ere; giza baliabideak (zenbat pertsona daude prest eta adorez gure ekimenarekin aurrera egiteko?); eta denbora, ezinbestekoa aurreikusitako ekintzak egiteko.

Bestalde, garrantzitsua da aintzat izatea, **lan kolektibo orotan bezala, pertsona bakoitzak rol bat (edo batzuk) betetzen duela eta denak direla beharrezkoak neurri berean.** Agian, pertsona bat sare sozialez arduratu daiteke, baina ez kartelak itsasteaz, edo alderantziz, arrazoi desberdinentzatik. Eragin-prozesu bat abiarazteko orduan, interesgarria da prozesu horretan parte hartzeko prest dauden pertsonen beren indarguneak eta ahuleziak azaltzea, eta zereginak horren arabera banatzea: beharbada, pertsona bat irekia da eta ona besteak

konbentzitzen, beste kolektibo batzuekin eta hautetsiekin hitz egiteko profil egokia; beste pertsona bat ona izan daiteke ofimatan, eta, beraz, online-izapideez, sare sozialez eta abarrez arduratu daiteke.

InteRed Fundazioa EAEko hainbat udalerritako emakume-erakundeekin egiten ari den prestakuntza-prozesuan, nola baiteko frustrazioa antzeman da parte-hartzaile batzuen artean, eztabaidak izateko, antolatzeke eta ekintzetan gehiago sakontzeko denborarik ez dagoelako, beren eskaerak eta deialdiak ikusgarriago egiteko tresnarik eta ezagutzarik ez dagoelako, eta baita, erakundeekin aliantzak egiteko gai izanagatik, konpromiso guztietara joaterik izan ez dutelako ere. Oztopo horien aurrean, garrantzitsua da eragin-helburu errealistak ezartzea eta kolektiboaren ahuleziak indartzen lagunduko duten aliantza horiek ehuntzea. “Oso pertsona gutxi gara denbora guztian inplikaturak gaudenak”, diote proiektuan parte-hartzen duten emakumeek.

Zer baliabide eta ezagutza dauzkagun jakinda, **zer falta zai-gun jakin behar dugu**. Baliabide ekonomikorik eza konpon daiteke partidaren bat murriztuz edo finantzaketa-bideren bat abiaraziz: dirulaguntza publikoak eskatzeko aukera baloratu daiteke, ekitaldiak antolatu funtsak lortzeko (kontzertuak, bakarrizketak, hitzaldiak barrarekin, etab.) edo *crowdfunding* kanpaina bat sustatu (denbora eta ezagutza behar dira horretarako).

Eragin-prozesua gauzatzeko behar den ezagutza teknikoa ez badaukagu, pareko bideak egin dituzten antzeko beste kolektibo batzuei eska dakieke laguntza eta aholkularitza. Elkartruke horrek, gainera, antzeko kolektiboen artean aliantzak ehuntzen lagunduko du.\*

Gure baliabideak, estrategia eta ekintzak zein diren jakinda, **gomendagarria da kronograma bat ezartzea, egutegia osatzeko**. Ez da arraroa kolektiboetan gauza asko airean geratzea, erabaki bat hartzeko edo ekintza jakin bat egiteko mugaegunik jarri ez delako.


Egutegian, kontuan izan lehen adierazitako data garrantzitsuak (M8 edo A25) hedabideetan proiektio handiagoa izateko, baita lortutako eragina blokeatu edo airean utz dezaketen hauteskunde-prozesuak ere (udal-hauteskundeak, autonomikoak eta/edo estatukoak).

**Gure aukeren araberako kanpainak egin behar dira**. Adibidez, hiru argitalpen sortu ditzakegu sare sozialetan, eta etengabe hornitu, ahalegin gehigarri txiki batekin haien hedapena handitzeko.

## GAL DE RAK



- Zer baliabide ekonomiko dauzkagu aurreikusitako ekin-tzen gastuei aurre egiteko?
- Finantziazio-bideren bat erabil dezakegu?
- Zer pertsona daude prest ekin-tzetan denbora emateko, eta zer neurritan?
- Zer profil eta indargune dauzka parte hartzeko prest dagoen kolektiboko pertsona bakoitzak?
- Noiz egin nahi dugu ekintza (edo ekintzak)?



## I DEI AK

- Egin zuen aukeren araberako kanpainak, eta bilatu sinergiak zuen udalerrian edo auzoan garrantzitsuak diren talde eta profilekin, zabalkundeetan, finantzaketan eta abarretan lagundu dezaten.
- Kontuan izan deialdien data eta ordutegia (bai prestatze-bilerena, bai ekintzena), ahalik eta emakume gehienek izan dezaten parte hartzeko aukera (langileak, kontziliatzen dutenak, etab.).

# 07

**MONITORIZAZIOA  
eta ebaluazioa**



Politika publikoetan eragina lortzeko planteatutako estrategia aplikatzean, **aurreikusi gabeko oztopoak sortu daitezke, eta, horrenbestez, jarraipena egin eta barne-komunikazio ona izan behar da**, oztopo horiek kolektibo gisa gainditzeko.

Gainera, beti komeni da prozesua monitorizatzea eta ebaluatzea:

### ZER LORTU DUGU?

### LORTU AL DIRA AURREIKUSITAKO HELBURUAK?

### ZER GERATU DA LORTU GABE?

### ZER IKASI ETA HOBETU DAITEKE ETORKIZUNEN ERAGIN-PROZESU BATI BEGIRA?

**Bizitakoaren bateratze-lana egitea eta lortutakoa ospatzea** beti da egokia taldea, kolektiboa, indartzeko eta hurrengo ekintzetan oso baliagarriak izan daitezkeen irakaspenak jasotzeko. Era berean, kontuan izan behar da beti ez dela arrakasta lortzen eragin politikoko prozesuan.

Beharrezkotzat jotzen bada, **AMIA azterketa** egin daiteke kolektiboaren egoera aztertzeko, barne-ezaugarrietan (Ahuleziak eta Indarguneak) eta kanpo-ager-tokian (Mehatxuak eta Aukerak) oinarrituta.


*Berdintasunaren unea da: zaugarritasun-arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea –begirada globalarekin– indarkeria matxistarik gabeko mundu baterako agente eraldatzaile gisa proiektuko parte-hartzaileek positibotzat jotzen dute herriko emakumeak elkarrengana hurbiltzea, sare sozial bat ehundu izana: “Jarduerak oso giro hurbila sortu zuten, eta lehen soilik elkar agurtzen genuen emakumeek barre, negar edota abestu egin genuen elkarrekin. Orain, elkar ikusten dugunean, hitz egiten gelditzen gara”.*

**Oztopo gisa, denbora faltaz gain, hauek aipatu dituzte: “desberdintasun ideologikoak” a priori antzekoak diren kolektiboen artean** (batzuk indarrak batzearen aldekoak dira, desadostasunak gorabehera, eta beste pertsona batzuek, berriz, nahiago dute lankidetzan ez aritu); eta alderdi edo sindikatu batek kontrolatuko dituenaren beldurra, hurbiltasun edo kidetasun ideologikoagatik, eta horrek dakarren autonomia-galera. Aniztasun txikia ere ikusten dute kolektiboaren barruan: “Adin, jatorri eta/edo kultura gehiagotako emakumeak nahiko genituzke gure taldean. Landu nahiko genukeen zerbait da, baina hori ez da egun bate-tik bestera lortzen. InteRedekin, batez ere Erdialdeko Amerikako jendearekin partekatu ditugu espazioak. Beste jatorri batzuetako emakumeekin gehiago landu behar dugu batzen gaituen hori”.

## GALDE RAK

- Lortu al dugu lortu nahi genuena?
- Zer geratu da lortu gabe?
- Zer arazo sortu dira eta nola konpondu litezke etorkizuneko ekintza bati begira?





## I DEI AK

- Eragin-kanpainaren ondoren, haren arrakasta handia edo txikia ospatu behar da partehartzaileekin. Sortu espazio atsegin bat zeuk elkartzeko eta bizitakoa aztertzeko.
- AMIA azterketa egin edo ez azter dezakezue: Indarguneak, Ahuleziak, Aukerak eta Mehatxuak.

## NOLA IKUSTEN DUTE ERAKUNDEEK KOLEKTIBO FEMINISTETARA HURBILTZEA?

Eragina izateko zailtasunak bi norabidekoak dira: kolektiboek askotan ahuleziak izaten dituzte komunikatzeko eta erakunde publikoetara iristeko, baina emakumezko zinegotzi hautetsiek eta indarkeria matxisten aurka lan egiteko borondatea duten beste kargu publiko batzuek ere zenbait oztipo hautematen dituzte.

Udalerrri txikietako emakumezko politikari hautetsiek eta berdintasun-teknikariek ohartarazi duteenez, oro har, kostatu egiten zaie biztanleriaren geruza espezifiko batera iristea: adineko emakumeengana. Salbuespenezko kasuetan izan ezik, adineko oso emakume gutxi edo ia batere ez da izaten antzerki-jardueretan edota filmen proiektioetan. Bizitza osoa besteei ematen, besteak zain-

tzen eta bigarren maila batean eman ondoren, jende berriarekin sozializatzea gehiago kostatzen zaiela ikusten dute. Egoera horrek indarkeria matxistak jasateko (edo jasaten jarraitzeko) pertsona zaurgarri bihurtuko lituzke.

Pertsona horietako batzuk erretiratuen elkarteetan edo antzekoetan antolatuta daude herrietan. Erakundeek zuzeneko harremana ezar dezakete kolektibo horiekin, antolatzen denari buruzko zuzeneko informazioa emateko eta ideiak proposa ditzaten gonbidatzeko, inplikaturatu senti daitezten. Zailagoa da talde horietan ere ez dauden emakumeengana iristea. Haientzat, "erakartze"-kanpaina bat abiaraztea proposatzen da, sozializatu eta komunitateko bizitzan integra daitezten. Hala, profil horiek erakar ditzaketen topaketak zabaldu daitezke udalen sare sozialen bidez (WhatsApp eta antzekoak) eta kartel fisikoak jarrita pertsona horiek ibiltzen diren lekuetan (autobus-geltokia, kutxazain automatikoa, okindegia...).

Bestalde, esparru instituzionalari dagokionez, adierazi dute norma-lean kostatu egiten dela ekitaldi feministetara (filmak, antzerkia,

hitzaldiak, etab.) dezente jende inguratzea; protagonistek nolabaiteko ospea dutenean soilik etortzen da jende asko. Haien ustez, hori horrela da herriaren aldarrikapenen artean lehen planoan jartzen ez delako, udalerriri erasaten dion arazo moduan ulertzen ez delako, ziurrenik. Gainera, gehienbat emakumez osatuta egon ohi da publikoa; gizonek nahiko interes txikia erakusten dute ekitaldi feministetan parte hartzeko.

Adibide zehatzak jartzen dituzte: herriko jaietan, beti izaten da jendea sobera txosnetako barrako txandak egiteko, eta, alderantziz, ia ez dago boluntariorik (emakumeak dira beti) gerta daitezkeen eraso matxisten berri emateko 24 orduko arreta-telefonoaz arduratzeko; era berean, boluntario gutxi izaten ditu martxoaren 8arekin lotuta egiten den “lasterketa lilak”, eta herrian urtero antolatzen den mendi-lasterketa batean laguntzeko, berriz, dozenaka lagun biltzen dira.

Kasu honetan, ekitaldi eta kausa feministetan bitzta komunitarioa egiten duten pertsonen inplikazio handiagoa lortzeari buruz ari gara. Ez da zaila haiengana iristea, eta hori positiboa da, baina haiek konbentzitzea izaten da arazoa. Hala

ere, xede-taldea zabaldu liteke, eta beste profil batzuk erakartzen saiatu. Ikusi denez, batek besteari esanda eta zuzenean konbentzitututa apuntatzen dira boluntarioak sarritan, baina baliteke herrian hainbeste bitzta egin ez eta sartzeko bide ona izango luketen batzuk jakin gabe geratzea.

Beste profil batzuetara iristen saiatzea eta boluntario izateko deiak sustatzea, online-galdetegi bidez, kolektibo feministek antolatzen dituzten ekitaldietan izena emateko aukera izanik. Eta udalen hedapen-bideak baliatuz zabaltzea informazio hori.

Kolektibo feministek ikusten dute, halaber, askotan burokrazia oztopo edo ahalegin gehigarria dela beren kanpainetan (ekitaldiak antolatzen, kartelak jartzen, espazioak eta laguntza publikoak eskatzen...). Ildo horretan erraztasunak emateak lagundu dezake emakumeen kolektiboen eta erakundeen artean harreman arinagoa ezartzen. Adibidez, udal-espazioak erreserbatzeko webgune bat irekiz.

Badira hamarkada  
batzuk emakumeok  
eragin politikoa  
bilatzen dugula,  
gure giza eskubideak  
urratzen direlako  
eta bidezkoa delako  
denok, gizon zein  
emakume,  
indarkeriarik gabe  
bizitzea.

Manuela Ramos  
Emakumeen Mugimendua